

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposizioen inguruko web aplikazioa erabilgarri dute oposiziogileek

Aurten, lehenengoz, alertak jasotzeko harpidetu ahalko dira izangaiek

Larunbata, 2018.eko ekainak 16

Hezkuntza departamentuak [web aplikazioa](#) argitaratu du Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposizioetarako. Aplikazioan argitaratuko dira, besteak beste, Epaimahaien deialdiak, pliken puntuazioak eta irekiera nahiz proben behin behineko eta behin betiko emaitzak.



Aplikazioaren hasierako pantaila.

Aplikazioaren berritasunetako bat da harpidetze sistema da. Izangaiek izena eman ahalko dute argitaratzen den guztiaren berri berehala jaso ahal izateko. Posta elektronikoa ematea eta intereseko espezialitatea adieraztea nahikoa izango da, aplikaziora informazioren bat igo dela jakiteko, alerta sistemaren bidez.

Lehenengo hitzordua

Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide heziketako 325 plaza betetzeko oposizioaren lehenengo hitzordua [ekainaren 20an](#) da. Aurkezpen ekitaldia egingo da orduan eta izangaiek programazio didaktikoa aurkeztu beharko dute egun horretan.

Era berean, ekainaren 23rako deitu zaie izangaiei, goizez eta arratsaldean, oposizioko azterketak egiten hasteko. Ordutegi zehatzak berehala argitaratuko dira, espezialitate eta hizkuntzaren arabera. Izangai guztiek bermatuta daukate probak egitea izena ematen duten espezialitate eta hizkuntza guztietan.